



EIBARKO INGURUMEN PLANA

AMAIERAKO DOKUMENTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua (Ingurumen eta Obra Hidraulikoen saila)

LAGUNTZA TEKNIKOA: lan hau ENEAren laguntza teknikoarekin egin da

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA ¡Error! Marcador no definido.
2. METODOLOGIA ETA LANAREN GAKOAK ¡Error! Marcador no definido.
3. EKINTZA PLANA..... ¡Error! Marcador no definido.
 - 3.1 PLANAREN ESKEMA ¡Error! Marcador no definido.
 - 3.2 EKINTZEN DESKRIBAPEN-FITXAK ¡Error! Marcador no definido.

1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Eibarko Udalak tokiko jasangarritasunaren arloan dihardu lanean, 15 urte baino gehiagotan. 2002an **Debabarreneko Udaltalde** eraturik eta 2003an Eskualdeko Ekintza Plana onartuta, 2004an Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerriaren Euskal Sarearen parte izatera igaro zen. Urtebete geroago, 2005ean, Udalak Aalborg-eko gutuna sinatu zuen, eta, aldi berean, bere Tokiko Agenda 21 Plana definitzen hasi zen. Plan hori lantzeko orduan, udalaren teknikariek eta politikariek parte hartu zuten, bai eta udalerraren eragile giltzarriek ere.

Euskadin Tokiko Agenda 21 prozesu-diseinuaren metodologiak ezartzen duen legez, barne-gogoeta prozesu horrekin batera, 2005ean **herritarren parte-hartze** prozesua jarri zen martxan. Herriaren egoera eta haren hobekuntzarako estrategiei buruz herritarrek duten sentsibilitatea jasotzeko asmoz, guztira 6 bilera egin ziren herritarren partaidetza Foroarekin.

Horrekin guztiarekin, Eibarren Tokiko Agenda 21 definitzeko prozesua 2006ko otsailaren 27an amaitu zen, **Tokiko Ekintza Plana Udal Bilkuran onartuta**.

2007an, Debegesaren ekimenez, formazio-proiektu bat jarri zen martxan, Debabarreneko udaletako teknikariei eta politikoei zuzenduta, haien artean Eibarkoak, aipatutako udal horietako teknikariak eta politikoak sentsibilizatzeko eta trebatzeko, eta udalerriri horietan Tokiko Agenda 21eko prozesuak berriro aktibatzeko.

Horren haritik, azpimarratu behar da urte hauetan zehar Eibarrek Debegesaren eskutik lan egin duela, bai herri mailan bai eskualde mailan, eta hainbat ekimenetan parte hartu duela esparrua zedarrizten joan direnak eta jasangarritasuna modu progresiboan txertatu dutenak tokiko politketan.

Bestalde, 2013an Udalak **Eibarko Plan Estrategikoa** idazteari ekin zion, 2025. urteko epemugari begira. Plan horren idazketa 2016an amaitu zen, eta Eibarri etorkizunerako bisio berri bat eman eta herri-eredu berri bat ezarri zuen.

<https://www.eibar.eus/es/ayuntamiento/objetivos-y-proyectos/plan-estrategico-de-eibar-2025/PlanEstrategicoEibar2025informeSep2016.pdf>

Plan berri horretan, Eibarko Ingurumen Plana garatzeko oinarrizko helburu batzuk jasotzen dira eta lan-ildo bat ezartzen da lau dimentsiotan egituratua:

1. ERRONKA: Trantsizio ekologikoan dagoen hiri bat
2. ERRONKA: Eszenategi berrian birkokatutako jarduera ekonomikoa
3. ERRONKA: Pertsonentzako udalerria
4. ERRONKA: Gobernantza-eredu berri bat

Kontuan izanik landutako dimentsioetako bat ingurumenaren bisioa dela (1. ERRONKA), beharrezkotzat jo zen Eibarko Udalean Ingurumen teknikari bat kontratatzea Eibarko garapen iraunkor edo jasangarriarekin lotutako ekintzak definitu, gauzatu eta haien lidergotza izateko, betiere ingurumen-aldagaia lanaren zeharkako elementutzat joz. Beraz, lan honen helburu nagusienetako bat izan da Eibarko garapen jasangarriaren Plana diseinatu eta martxan jartzea.

Era berean, azpimarratu behar da 2017ko urtarrilaren 13an, Ingurumen Aholku Batzordeak, besteak beste, tokiko jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berretsi zuela Euskal Autonomia Erkidegoan "Udalsarea 21, jasangarritasunareko Udalerriaren Euskal Sarean". Akordio hori Gobernu

Batzarrak onartu zuen urtarrilaren 20an, eta horrekin berretsi egin zen Udalaren konpromisoa tokiko jasangarritasunaren alde.

Kontuan izanik, Tokiko Agenda 21 Plana agortuta dagoela eta 2017an Ingurumen teknikari lanpostua sortu dela, egokitzen da ingurumen-plan bat definitzea, zerbitzu honen ekintza bideratuko duena eta hurrengo urteetako lehentasunak ezarriko dituen.

Plan honekin, gainera, berriz ere ekin nahi zaio orain arte Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lhobek sustatuako **Tokiko Agenda 21eko ekintza-planen ebaluazioaren eta jarraipenaren prozesuari**; izan ere, plan horiek, exekuzio-mailan eta tokiko jasangarritasun-adierazleen kalkuluan oinarrituz, udalei beren ekintza-planen gestio aktiboan ahalbidetzen diete. Horrek aukera ematen dio herriari ingurumen-aldagai nagusien eboluzioari buruzko informazioa izateko, programa horietan parte hartzen duten Udalsarea 21eko herrietako udalerriekin alderatzeko eta herriko ingurumenaren egoerari buruz kontu-emateko.

Egin beharreko ekintzen planifikazio bat izatea, epe eta lehentasun batzuekin, zeina era aktiboan gestionatzen den eta, gainera, herriarentzat interesgarri diren adierazleen analisi batekin osatzen den, oso modu egokia da esparru horretan udalak duen jarduera antolatzeke eta egituratzeko. Edonola ere, eta Planaren beraren ekintza batek jasotzen duen bezala, uste dugu **Plan hau abiapuntu egoki bat dela, gogoeta sakonago bat hasteko herriaren jasangarritasunerako ekintza-plan baten behararen inguruan**. Diagnostiko zehatz batean oinarritutako plan bat, herriarentzat lehentasuna duten esku-hartzeak zein diren identifikatzea ahalbidetuko duena eta tokiko esparrutik erantzun irmo bat eskatzen duten kontuak jasoko dituen, hala nola klima-aldaketa.

Dokumentu honek Plan hau aurrera eramateko prozesua jasotzen du, kontuan izandako gakoak eta lerro estrategikoen, programen eta proposatutako ekintzen zehaztapena.

2. METODOLOGIA ETA LANAREN GAKOAK

Lan hau egiteko metodologia Udaleko eta **Debegesa Eskualdeko Garapen Agentziako** langileekin izandako bilera teknikoetan oinarritu da eta **Ingurumen Batzordearekin** kontrastatu da.

Jarraian prozesuaren gakoak aurkezten dira:

- Plan Estrategikoaren esparruan egindako lanari balioa ematea, bai **formulazio estrategikoari** dagokionez, bai **ekintzen definizioari** dagokionez ere.
- **1. Erronka** bere osotasunean kontuan hartzea, lanaren helburuarekin lotura zuzenena duelako, eta **2., 3. eta 4. Erronkak** aztertzea, ingurumen-aldagai bat duten ekintza-proiektuak eta ildoak ateratzeko eta, hortaz, Ingurumen Ekintza Planean sartzeko.

Era horretan, trazabilitatea aztertu da Plan Estrategikoan proposatutako erronka eta helburuekin; ekintzak sakonago aztertu dira (zehaztapen-maila handiagoa lortzeko asmoz) eta azken horri ekintza berriak gehitu zaizkio, erronka estrategikoei jarraituz bidezkoak jo izan direnak.


- Kontuan izatea mugikortasun jasangarriaren planaren ekintzak eta ingurumen-teknikariaren lanpostuko oinarri arautzaileetan deskribatutako funtzioak, ekintzak proposatzeko orduan.
- **Ekintzen proposamen mugatu eta bideragarri bat egitea**, Planaren ezarpena bermatuko duena adostutako indarraldian.
- **Izaera berritzaile** bat ematea ekintzen proposamenari. Horretarako, kontuan hartuko dira tokiko jasangarritasunaren arloko lan-joera edo ildo berriak, Plan Estrategikoa egiteko orduan aintzat hartu ez direnak baina bidezko jotzen direnak haien inguruko gogoeta eta eztabaida egiteko (ekonomia zirkularra, klima-aldaketara egokitzea, etab.).



3. EKINTZA PLANA

3.1 PLANAREN ESKEMA

Planak **5 ildo estrategiko ditu, 16 programa eta 80 ekintza**, EAeko Toki Agenda 21eko Ekintzen Planak egiteko marko metodologikoarekin bat etorriz eta honako figura honetan zehazten den logikari jarraituz:



Hona hemen Ekintza Planaren bost lerro estrategikoak, zeinek Eibarko herriko ingurumen-arluko jarduera bideratu behar duten helburu estrategikoei erantzuten dieten.

1.LE. KARBONO GUTXIKO MODELO ENERGETIKO BATEN ALDEKO PAUSOAK EMATEA ETA UDALERRIA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA BULTZATZEA

2.LE. UDALERRIAREN INGURUMEN-KALITATEAREN ETA BALIABIDEEN GESTIOAREN HOBEKUNTZAN AURRERA EGITEA, EKONOMIA ZIRKULARREKO EREDU BATEAN OINARRITURIK

3.LE. NATURA-INGURUNE ETA HIRI-INGURUNEAREN GESTIO INTEGRAL BAT EGITEA, ESPAZIO DEGRADATUAK BERRESKURATZEA BULTZATURIK

4.LE. MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA BAI HERRI BARRUKO JOAN-ETORRIETAN BAI HERRIARTEKOETAN ERE

5.LE. GOBERNANTZA-EREDU BAT ARTIKULATZEA UDALERRIKO INGURUMEN-POLITIKAK ETA ADMINISTRAZIOA INGURUMEN-IRIZPIDEETARA EGOKITZEA SUSTATZEKO

Jarraian, lerro bakoitza xehatuta aurkezten da, dagozkion ekintza eta programekin:

1.LE. KARBONO GUTXIKO MODELO ENERGETIKO BATERAKO PAUSOAK EMATEA ETA UDALERRIA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA BULTZATZEA

1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.

1.1.1 Udal ekipamenduen eta argiteria publikoaren kontsumo energetikoen gestio aktiboa egitea, fakturazioaren jarraipenean eta analisisian oinarritua.

1.1.2 Jarraipen bat egitea "Itunerantz Zuzenduz" ekimenean hitzartutako konpromisoak

1.1.3 Udal plan energetiko bat egitea

1.1.4 Eskualdeko energiaren Behatokian parte hartzea eta informazioa udal webgunearen bidez zabaltzea

1.1.5 Energiaren alorreko formazio- eta sentsibilizazio-ikastaroak egitea udal teknikariei eta instalazioetako mantenimendu-arduradunei zuzenduak

1.1.6 Udal ekipamenduetan iturri berriztagarrietako energiaren instalazioa eta kontsumoa sustatzea

1.1.7 Argiteria publikoan LED progresiboki sartzeta.

1.1.8 Udal instalazioetan argiak progresiboki ordeztzea

1.2 Udalerriko sektoreei, herritarrei oro har eta ikastetxeei neurriak hartzen laguntzea, energia aurrezteko, energia-efizientziarako eta energia berriztagarriko iturriak erabiltzeko.

1.2.1 Herritarre oro har eta sektore ezberdinei zuzendutako kontsumo energetikoaren arloko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.

1.2.2 Euronet 50/50 ekimena sustatzea, udalerriko eskoletan energia-aurrezpena bultzatzeko.

1.2.3 Tresna fiskalak aztertzea, udalerrian energiaren eskaera murriztea, eraginkortasuna bultzatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea ahalbidetzeko.

1.3 Konpromisoak planifikatzea eta hartzea, klima-aldaketa gutxitu eta hartara egokitzeko, emaitzen jarraipena eginez.

1.3.1 BEG (Berotegi-efektuko gasak) igorpenak murrizteko udal konpromiso bat sustatzea, hala erabakiz gero, urtero emaitzen jarraipena eginez eta haien berri emanez.

1.3.2 Udalak klima-aldaketaren aurrean duen zaurgarritasun eta arriskua aztertzea.

1.3.3 Klima-aldaketara egokitzeko hartu beharreko neurriak planifikatzea

1.3.4 Climatedon bezalako ekimenak sustatu eta sendotzea, klima-aldaketari aurre egiteko soluzio sortzaileak partekatu eta bultzatzeko.

1.3.5 Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.

2.LE. UDALERRIAREN INGURUMEN-KALITATEAREN ETA BALIABIDEEN GESTIOAREN HOBEKUNTZAN AURRERA EGITEA, EKONOMIA ZIRKULARREKO EREDU BATEAN OINARRITURIK

2.1 Airearen eta lurzoruen kalitate-kontrol eta –jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.

2.1.1 Airearen kalitateari buruzko datuen jarraipena egitea.

2.1.2 Zarataren mapa berrikustea eta eguneratzea.

2.1.3 Kutsadura akustikoa prebenitzeko eta murrizteko plan bat egitea.

2.1.4 Lurzoru kutsatuen gestioa eta berreskurapena lantzea

2.1.5 Azitaingo Industria Poligonoan, lur azpiko uren eta gasen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea

2.1.6 Airearen kalitateari eta zaratari buruzko informazioa herritarren esku jartzea

2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren hobekuntzan aurrera egitea

2.2.1 Udalean hondakinak gaika biltzearen emaitzak aztertzea eta jarraipen etengabea egitea.

2.2.2 Udalerrian egiten diren ekimen eta jaietan kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa egokia sustatzea.

2.2.3 Hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena sustatzea, sentsibilizazio-kanpainak eta ekintza zehatzak eginez herritarrei oro har eta sektore jakin batzuei zuzenduak, hala badagokio, Mankomunitatearekin lankidetzan.

2.2.4 Kontsumo arduratsua sustatzea eta elikagaiak alferrik xahutzea prebenitzea inplikaturako eragileekin koordinatuta (komertzioak eta azalera handiak, ikastetxeak, ostalaritza, etab.)

2.2.5 Udal eraikinetan hondakinen gestioa hobetzea

2.2.6 Udalerrian minipuntu garbiak eta balio anitzeko edukiontzia jartzea hondakin solido txikiak jasotzeko, betiere berrerabili edo birziklatzeko modukoak badira.

2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea

2.3.1 Uraren kontsumo arduratsuari eta saneamendu-sarearen erabilera egokiari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea

2.3.2 Isurketen arloko araudia betetzen den ikusteko ekintzak planifikatzea eta lehenestea.

2.3.3 Udalaren kontsumoan, ura berrerabiltzeko ekintzak sustatu eta garatzea

2.3.4 Udalerrian arriskuaren telegestio-sistema bat ezartzea

2.3.5 Ura aurrezteko sistemak ezartzea eraikinen eta udal ekipamenduen ur-kontsumoaren efizientzia areagotzeko

2.3.6 Udal eraikinen ur-kontsumoak aztertzea eta kontsumoen kontrol- eta jarraipen-sistema bat ezartzea

2.3.7 Udalerrian, iturburukoak diren iturrien uraren kalitateari buruzko informazioa ematea

2.4 Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen-gestioa hobetzea

2.LE. UDALERRIAREN INGURUMEN-KALITATEAREN ETA BALIABIDEEN GESTIOAREN HOBEKUNTZAN AURRERA EGITEA, EKONOMIA ZIRKULARREKO EREDU BATEAN OINARRITURIK

2.4.1 Udalerriko enpresa-ehunaren ingurumen-portaerari buruzko ezagupena hobetzea eta ekintzarako lehentasunak ezartzea

2.4.2 Enpresak ingurumen-araudira egokitzea sustatu eta erraztea

2.4.3 Udalerriko jarduera ekonomikoetan ingurumen-jardunbide egokiak har daitezela bultzatzea

3.LE. NATURA-INGURUNE ETA HIRI-INGURUNEAREN GESTIO INTEGRAL BAT EGITEA, ESPAZIO DEGRADATUAK BERRESKURATZEA BULTZATURIK

3.1 Udalerriko ingurumen- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea

3.1.1. Udalerriko ingurumen-ondarearen inbentarioa egitea eta handik sortutako neurrien inplementazioa baloratzea, udalerriko biodibertsitatea eta naturguneak babesteko

3.1.2 Arrate, Santa Kurutz, Usartza, Kalamua eta Akondia ingurune babestuen guneen planifikazioa, jarraipena eta kudeaketa egitea

3.1.3 Debemenekin elkarlanean aritzea, lehen sektorea sustatzeko Planean ingurumen-aldagaia txertatzeko.

3.1.4 Ermua-Eibar ibai-parkearen exekuzioa bultzatzea, Deba ibaia Proiektuaren baitan

3.1.5 Herriko ubide eta urbazterrak mantendu eta garbitzeko egin beharreko ekintzen planifikazioa eta jarraipena

3.1.6 Espezie inbaditzaileak prebenitzeko eta kontrolatzeko ekintzak martxan jartzea

3.1.7 Basoberritze-ekintzak egiten jarraitzea

3.1.8 Jasangarritasun-irizpide batzuk garatzea, lorategien eta berdeguneen diseinuan eta mantenimenduan txertatzeko

3.2. Ingurune naturalaren balioak herritarrei gerturatu eta ezagutzera ematea

3.2.1 Hiri-ortu ludikoak jartzea aztertzea

3.2.2 Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeetan ortuak sortzea bultzatzea

3.2.3 Ibilbide-sare bat egokitu eta sustatzea, Eibarko aberastasun natural, kultural eta paisajistikoa erakusteko

3.2.4 Sentsibilizazio-kanpainak egitea, natur ondarearean (Zuhaitz eguna, etab.) babes eta kontserbazio-alorrean

3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuen berreskuratzea sustatzea

3.3.1 Jasangarritasun-irizpideak eta klima-aldaketara egokitzekoak sartzeari HAPOnen berrikusketan

3.3.2 Udalerrian berdeguneak handitzea edo berriak sortzea bultzatzea

3.3.3 Asua Erreka inguruaren hobekuntzan ingurumen-aldagaia sartzeari

3.3.4 Matxaria berritzeko Planean ingurumen-aldagaia sartzeari

3.3.5 Erdigunean eta auzoetan espazio publikoaren kalitatea hobetzea (hiri-akupuntura plana eta auzoko bihotzak)

3.3.6 Dirulaguntza-lerroak sortzea fatxadak zaharberritzeko eta erabiltzen ez diren industria-erakintzak sustatzeko

4.LE. MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA BAI HERRI BARRUKO JOAN-ETORRIETAN BAI HERRIARTEKOETAN ERE

4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea

4.1.1 Auzoen eta erdigunearen arteko konexio erosoak errazten duten oinezkoen ardatzak definitzea

4.1.2 Erdiguneko espaloiak hobetzeko plan bat egitea, oinezkoen ardatz nagusi bat sortzea bideratua, udalerriko erdiguneko jarduera gune nagusiak lotuko dituen

4.1.3 Udalerriko ikastetxeetan Eskolarako Bidea ekimena ezartzeko aukera baloratzea

4.1.4 Herriko bide-sarean bizikleta sartzeko, bidegorriak sortuz eta bizi-autoa/bizi-oinezkoa konbinezatzea guneak eratuz

4.1.5 Bizikletak aparkatzeko leku batzuk bermatzea beharren arabera egokituak eta bizikletentzako espazio seguruak gaitzea herriko gune batzuetan

4.1.6 Mugikortasun jasangarriaren arloan heziketa- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea

4.2 Garraio publikoa eta garraiobide ez-motordunak sustatzea, beste herrietara egindako joan-etorrietan

4.2.1 Autobus Geltokiaren ingurua eta irisgarritasuna hobetzea

4.2.2 Eskari bidezko garraio-plan bat martxan jartzea baserri-auzoetan sakabanatutako guneei zerbitzua emateko

4.2.3 Aldameneko udalerriek lotzeko bidegorrien exekuzioa bultzatzea eta jarraipena egitea

4.2.4 Markesina eta geltokiak egokitzea eta haien kokapen, mantentze, seinalizazio eta irisgarritasunaren hobekuntzak egitea

4.3 Udalerrian trafikoa lasaitzea eta ibilgailu eta erregai garbiak erabiltzea bultzatzea

4.3.1 Udal flotan ibilgailu elektrikoa era progresiboan sartzeko

4.3.2 Udalerrian ibilgailu elektrikoaren eta beste mugikortasun-bitarteko jasangarri batzuen erabilera bultzatzea

4.3.3 Trafikoa lasaitzeko Plan bat egitea

5.LE. GOBERNANTZA-EREDU BAT ARTIKULATZEA UDALERRIKO INGURUMEN-POLITIKAK ETA ADMINISTRAZIOA INGURUMEN-IRIZPIDEETARA EGOKITZEA SUSTATZEKO

5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne koordinazio-mekanismoak eta herritarrekikoak martxan jartzea eta kontu-ematea sustatzea.

5.1.1 Ekintza Planaren urteko gestio-dinamika bat finkatzea

5.1.2 Ingurumen Ekintza Planari lotutako komunikazio-estrategia eta kontu-emate bat definitzea

5.1.3 Ingurumen Ekintza Plana ezartzeari eta haren urtero gestioari lotutako herritarren partaidetza-eredu bat definitu eta martxan jartzea

5.1.4 Gogoeta-prozesua bat egitea, udalerraren jasangarritasunerako ekintza-plan baten oinarriak ezartzeko klima-aldaketaren aldagaia izango duena.

5.1.5 Agenda 21 programaren planifikazioan, diseinuan eta garapenean parte hartzea, Debegesarekin koordinatuta

5.1.6 Dirulaguntza-lerro berri bat sortzea, jasangarritasunaren eta ingurumenaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteei zuzendua.

5.1.7 Eibarrek toki- jasangarritasunarekin eta klima-aldaketarekin lotutako erreferentziako foro, espazio eta topaketetan parte hartzea bultzatzea

5.2 Ondasunen eta zerbitzuen erosketa-pleguetan eta kontratazioetan ingurumena progresiboki lantzea

5.2.1 Ondasunak eta zerbitzuak erosi eta kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzea

5.2.2 Udal teknikariei pleguetan ingurumena aintza hartzeko trebakuntza ematea

5.3 Udal langileen artean ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzea

5.3.1 Langileei ingurumen arloko formazioa ematea

5.3.2 Udal bulegoetan ingurumen-gestiorako sistema bat ezartzea (Ekoscan, ISO 14001,...)

3.2 EKINTZEN DESKRIBAPEN-FITXAK

KODEA:		IZENBURUA	
Ekintzaren identifikazio-zenbakia		Ekintzaren testu sintetikoa eta erraz ulertzekoa	
PROGRAMA.	Zer programatan sartzen den ekintza		
Deskripzioa:			
Ekintzaren definizioa eta oinarriko ezaugarriak (hartzaileak, irismena, egin beharreko ekintzak, etab.) Ekintza gauzatzeko eta baita ondorengo ebaluazioa egiteko behar diren gutxienerako elementuak jasotzen ditu			
Epea	Ekintza martxan jartzea hasteko aurreikusitako epea Motza: 2018-2019 Ertaina: 2020-2021 Luzea: >2022	Lehentasuna	Ekintzak udalerrarentzat duen garrantzia: Altua Ertaina Baxua
Gutxi gorabeherako kostua	Ekintza osorik gauzatzeko gutxi gorabeherako kostua: 0 € 0 - 3.000 € 3.000 - 15.000 € 15.000 - 35.000 € 35.000 - 50.000 € 50.000 - 80.000 € > 80.000 €		
Arduradun nagusia	Ekintzaren exekuzioaren ardura duen udal zerbitzua edo saila	Beste arduradun batzuk	Ekintzaren exekuzioan inplikaturako beste udal zerbitzu/sail edo eskualde mailako entitateak
Gaia	Zer edukiri erantzuten dion ekintzak	Aalborgeko konpromisoa	Aalborgeko zer konpromisorekin lotzen den ekintza

1.LE. KARBONO GUTXIKO MODELO ENERGETIKO BATERAKO PAUSOAK EMATEA ETA UDALERRIA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA BULTZATZEA

1.1.1	Udal ekipamenduen eta argiteria publikoaren kontsumo energetikoaren gestio aktiboa egitea, fakturazioaren jarraipenetik eta analisitik abiatuta		
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
<p>2017. urtean Debabarreneko Energiaren Behatokia jarri zen martxan. Sustatu nahi den ekintzetako bat da Eskualdeko udalerrietako kontsumo energetikoen fakturazioaren jarraipena hobetzea. Horretarako, energia-kudeaketarako software bat (SIE) daukagu ahalbidetzen duena gestio aktibo bat egitea, fakturazioan arazo posibleak identifikatzea, eta kontratuak optimizatzea.</p> <p>Ekintza honekin lortu nahi dena da beharrezkoak diren tramiteen jarraipena eta gestioa egiteko mekanismo bat artikulatzea, fakturazio egokia bermatzeko eta kontratuak ekipamenduen eta argiteria publikoaren benetako energia-kontsumoaren beharretara zuzen egokitzea ziurtatzeko</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 € (Urteko/6.870 euroko partida bat gordetzen da ekintza honetarako)		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.1.2 Jarraipen bat egitea "Itunerantz Zuzenduz" ekimenean hitzartutako konpromisoari			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
<p>"Itunerantz Zuzenduz" ekimenarekin bat eginez, akordio bat sinatu da Udalaren eta EEEren (Energiaren Euskal Erakundea) artean, udal bulegoetan eta argiteria publikoan hobekuntza energetikoak sustatzeko. Sinatutako akordioaren arabera, Udalak neurri zehatz batzuk hartu eta sustatu behar ditu, eta, horretarako jarraipena egin behar da eta aurrerapenak EEEra jakinarazi.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.1.3 Udal plan energetiko bat egitea			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
<p>Plan honekin jarraipena eman nahi zaio "Eibarko udal analisi energetikoa" dokumentuari, izan ere, horixe izan baita orain arte energia-arloko ekintzen urteroko planifikazioa egiteko erreferentzia-markoa. Udal ekipamenduen eta argiteria publikoaren fakturazioa eta kontsumoa aztertzeak ahalbidetuko du lehentasunak ezartzea eta egungo beharretara egokitutako planifikazio bat egitea.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Zerbitzuak
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.1.4 Eskualdeko energiaren Behatokia parte hartzea eta informazioa udal webgunearen bidez zabaltzea			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
Eibarko Udalak Eskualdeko energiaren Behatokia parte hartzen du eta kontsumoei buruzko informazioa eskuragarri dago Energiaren Atarian. Atarian argitaratzen den informazioa hilero eguneratzen denez, interesgarria litzateke ikusgaitasuna ematea eta herritarrei zabaltzea udal webgunearen beraren bidez, sare sozialen bidez, etab.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Baxua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.1.5 Energiaren alorreko formazio- eta sentsibilizazio-ikastaroak egitea udal teknikariei eta instalazioetako mantenimendu-arduradunei zuzenduak			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
Eskariaren murrizketa instalazioen energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren aurreneko pauso garrantzitsua da eta horregatik da hain inportantea erabiltzaileen formazioa eta sentsibilizazioa.			
Formazio- eta sentsibilizazio-plan bat egingo da, lehentasuna emanaz udal langile gehien pilatzen diren ekipamenduei eta izaera praktikoko tailer batzuk diseinatuko dira.			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Baxua
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Zerbitzuak
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.1.6 Udal ekipamenduetan iturri berriztagarrietako energiaren instalazioa eta kontsumoa sustatzea			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
<p>Ekintza honen helburua da ekipamendu publikoen energia-kontsumoa energia berriztagarriko iturrietatik etortzea. Zentzu horretan, hornidura elektrikoaren kontratua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zentralaren bidez egiten da eta energiaren jatorria % 100 da berriztagarria. Bestalde, udal eraikin edo ekipamendu berriek neurriak hartu beharko dituzte eraginkorrago izateko (adibidez Errebalek biomasa-galdara bat izango du, LED argiak, etab.). Halaber, aztertu egingo dira energia berriztagarria ekoizteko Eibarren dauden aukerak (ekipamendu publikoak, gordetako udal lorzorua, industrialdeen estalki pribatuak, etab aztertzea berriztagarriak inplementatzeko), udalaren kanpotiko energia-mendekotasun maila murrizteko xedez.</p>			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Obrak/Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

1.1.7 Udal ekipamenduetan iturri berriztagarrietako energiaren instalazioa eta kontsumoa sustatzea			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
<p>Urtero partida bat bideratzen da argiteria publikoko presio altuko sodio-lurruneke bonbillak (VSAP) modu progresiboan LED argiekin ordezteko.</p>			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	>80.000 € (100.000 € urtean)		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.1.8 Udal ekipamenduetan iturri berriztagarrietako energiaren instalazioa eta kontsumoa sustatzea			
PROGRAMA.	1.1. Udalaren planifikazio eta gestio energetikoa hobetzea eta aurrera egitea argiteria publikoaren eta udal ekipamenduen eraginkortasunaren hobekuntzan.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da ekipamendu publikoen energia-kontsumoa energia berriztagarriko iturrietatik etortzea. Horren harira, aztertu egingo da hornidura elektrikoaren kontratua horniduraren jatorri berriztagarria ziurtatzen duen energia elektrikoaren enpresa hornitzaile batekin egiteko aukera.			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	>80.000 € (20.000 € urtean)		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.2.1 Herritarrei oro har eta sektore ezberdinei zuzendutako kontsumo energetikoaren arloko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.			
PROGRAMA.	1.2 Udalerriko sektoreei, herritarrei oro har eta ikastetxeei neurriak hartzen laguntzea, energia aurrezteko, energia-efizientziarako eta energia berriztagarriko iturriak erabiltzeko.		
Deskripzioa:			
Lortu nahi den helburua da herritarrei beharrezkoak diren ezagutzak eta tresna ematea, haien energia-kontsumoa optimizatzeko eta dituzten beharrei egokitzeko. Horretarako, sentsibilizazio-kanpainak jarriko dira martxan, etxeetan eta hainbat sektoretan (komertzioak, ostalaritza, industria...) energiaren kontsumo arduratsua sustatzeko. Udalak parte hartuko du eraginkortasun energetikoaren alorrean beste entitate batzuek, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiak (Argitu Programa) eta Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako sentsibilizazio-programetan.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.2.2

Euronet 50/50 ekimena sustatzea, udalerriko eskoletan energia-aurrezpena bultzatzeko.**PROGRAMA.**

1.2 Udalerriko sektoreei, herritarrei oro har eta ikastetxeei neurriak hartzen laguntzea, energia aurrezteko, energia-efizientziarako eta energia berriztagarriko iturriak erabiltzeko.

Deskripzioa:

50/50 Euronet ekimenaren helburua da eskola-komunitatea kontsumo arduratsuan sentsibilizatzea eta energiaren aurrezpen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezan animatzea. Udalak ordaintzen ditu energiaren fakturak eta lortutako finantza-etekinak erdibana partekatzen dituzte eskolan eta Udalean:

- Ikasleek eta irakasleek hartutako eraginkortasun energetikoko neurriei esker lortutako aurrezpen ekonomikoaren % 50 itzuli egiten zaio ikastetxeari ordainketa finantzario baten bidez.

- Aurrezpen ekonomikoaren % 50 aurrezpen garbia da Udalarentzat, berak ordaintzen baititu fakturak.

Ekimena martxan jarri aurretik, eraikin publikoen energiaren gestioari lotutako jardunbide egokien gida bat egingo da; horretarako eraikin bat edo batzuk aukeratuko dira, haien artean ikastetxe bat, eta energiaren arduratuko den talde bat izendatuko da. Urtebetez, jarraipen-lan bat egingo da ikastetxe batean, ekimena testatu ahal izateko eta herriaren errealitateari egokitzeko, gainerako ikastetxeetan zabaldu baino lehen.

Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	DEBEGESA / Ikastetxea
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.2.3 Tresna fiskalak aztertzea, ahalbidetzeko udalerrian energiaren eskaera murriztea, eraginkortasuna bultzatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea.			
PROGRAMA.	1.2 Udalerriko sektoreei, herritarrei oro har eta ikastetxeei neurriak hartzen laguntzea, energia aurrezteko, energia-efizientziarako eta energia berriztagarriko iturriak erabiltzeko.		
Deskripzioa:			
Beste udalerrri batzuetan gai honekin lotutako hainbat esperientzia aztertuko dira, arlo honetan aurrera egin eta sakontzeko posibilitatea baloratzeko.			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Zerbitzuak
Gaia	6. ENERGIA	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

1.3.1 BEG (Berotegi-efektuko gasak) igorpenak murrizteko udal konpromiso bat sustatzea, hala erabakiz gero, urtero emaitzen jarraipena eginez eta haien berri emanez.			
PROGRAMA.	1,3 Konpromisoak planifikatzea eta hartzea, klima-aldaketa gutxitu eta hartara egokitzeko, emaitzen jarraipena eginez.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da udalak konpromiso bat hartzea bultzatzea, BEG igorpenak murrizteko; halaber, urtero emaitzen jarraipena egitea eta herritarrei haien berri ematea.			
Bada erreferentzia-marko bat BEG igorpenak murrizteari begira udal helburu batzuk ezartzeko: Euskadiko Klima Estrategia 2050, Gipuzkoa Klima 2050, etab.).			
Bestalde, Udalsarea 21 sareak tresnak jartzen ditu udalen esku, sareko udalerrri guztien eta udalaren BEG igorpenak kalkulatzeko.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Alkatetza
Gaia	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA	Aalborgeko konpromisoa	10. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA

1.3.2 Udalak klima-aldaketaren aurrean duen zaugarritasuna eta arriskua aztertzea.			
PROGRAMA.	1,3 Konpromisoak planifikatzea eta hartzea, klima-aldaketa gutxitu eta hartara egokitzeko, emaitzen jarraipena eginez.		
Deskripzioa:			
<p>Igorpenak arintzeaz gain, klima-aldaketa alorreko tokian tokiko ekintzak egokitzapen-politikak eskatzen ditu, klima-aldaketaren inpaktua leuntzeko.</p> <p>Horretarako, lehen pausoa da udalerrik hainbat mehatxuren aurrean —hala nola tenperaturaren igoera edo ibaien uholdeak, etab— izan dezakeen zaugarritasun maila eta arriskua ezagutzea.</p> <p>Ihobek azterlan bat egin du EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten zaugarritasuna eta arriskua aztertzeko eta udalerrri mailako emaitzak eskaintzen ditu. Lehen urrats gisa proposatzen da Eibarko emaitzak xehetasunez aztertzea (eskumena duten sailetako arduradunekin), eta sakontasun handiagoz aztertu behar diren arloak identifikatzea.</p>			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Hirigintza
Gaia	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA	Aalborgeko konpromisoa	10. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA

1.3.3 Klima-aldaketara egokitzeko hartu beharreko neurriak planifikatzea			
PROGRAMA.	1,3 Konpromisoak planifikatzea eta hartzea, klima-aldaketa gutxitu eta hartara egokitzeko, emaitzen jarraipena eginez.		
Deskripzioa:			
<p>Zaugarritasunaren eta arriskuaren analisisian oinarrituz, eta analisi horietan sakontzeko bidezkoztat jotzen diren azterlanetan, ekintza honen helburua da klima-aldaketara Egokitzeko Plan bat lantzea.</p>			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Hirigintza
Gaia	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA	Aalborgeko konpromisoa	10. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA

1.3.4 Klimaton bezalako ekimenak sustatu eta sendotzea, klima-aldaketari aurre egiteko soluzio sortzaileak partekatu eta bultzatzeko.			
PROGRAMA.	1,3 Konpromisoak planifikatzea eta hartzea, klima-aldaketa gutxitu eta hartara egokitzeko, emaitzen jarraipena eginez.		
Deskripzioa:			
Klima-aldaketaren aurka, ekoekintzailatza eta soluzio sortzaileak bilatzeko proiektuak bultzatzea. Eibarko Klimatoiaren edizio gehiago egitea.			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €.		
Arduradun nagusia	Garapen ekonomikoa.	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA	Aalborgeko konpromisoa	10. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA

1.3.5 Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.			
PROGRAMA.	1,3 Konpromisoak planifikatzea eta hartzea, klima-aldaketa gutxitu eta hartara egokitzeko, emaitzen jarraipena eginez.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da herritarrei klima-aldaketaren eta haren ondorioen berri ematea, arazo horren aurka lan egiteko moduei buruz sentsibilizatu eta ohartarazteko. Horretarako, herritarrentzako eta ikastetxeentzako sentsibilizazio-kanpainak egitea planteatzen da. Gainera, klima-aldaketari buruzko plana egin ondoren, kanpaina hauen bidez plana ezagutarazi egin nahi da. 2019an, aurreikusita dago Euskadiko Klima Aldaketaren Astean parte hartzea, hainbat ekitaldiren bidez (hitzaldiak, erakusketak, tailerrak, etab).			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	35.000 - 50.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA	Aalborgeko konpromisoa	10. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA

2.LE. UDALERRIAREN INGURUMEN-KALITATEAREN ETA BALIABIDEEN GESTIOAREN HOBEKUNTZAN AURRERA EGITEA, EKONOMIA ZIRKULARREKO EREDU BATEAN OINARRITURIK

2.1.1 Airearen kalitateari buruzko datuen jarraipena egitea.

PROGRAMA.	2.1 Airearen eta lurzoruen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da azken urteotan herriko puntu jakinetan estazio mugikor bat jarrita egindako airearen kalitatearen azterketak egiten jarraitzea, eta, hala, aztertzea ea eraginkorrak diren parametroak hobetzeko hartzen diren neurriak.			
Epea	Ertaina:	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.1.2 Zarataren mapa berrikustea eta eguneratzea.

PROGRAMA.	2.1 Airearen eta lurzoruen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da 2011n onartutako zarataren mapa berrikustea. Zarataren mapak bide emango du herriaren diagnostiko akustiko bat izateko eta identifikatzeko zein diren esku hartu beharreko zarata-foku eta gune nagusiak.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	10. Osasuna:	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.1.3 Kutsadura akustikoa prebenitzeko eta murrizteko plan bat egitea.

PROGRAMA.	2.1 Airearen eta lurzoruen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.		
Deskripzioa:			
Zarataren mapa egin ondoren, eta ateratako ondorioetan oinarrituz, kutsadura akustikoa prebenitzeko eta murrizteko Plana egingo da, zeinaren inguruan antolatuko diren egin beharreko ekintza guztiak, hala nola:			
<ul style="list-style-type: none"> • Zarata gestionatzeko helburu orokorrak Eibarren • Beharrezkoak diren bitartekoak eta tresnak Planari erantzuteko • Zaratak udalerriko beste elementu batzuekin dituen loturak • Esku-hartze posibleak zaratari aurre egiteko 			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	10. OSASUNA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.1.4 Lurzoru kutsatuen gestioa eta berreskurapena lantzea

PROGRAMA.	2.1 Airearen eta lurzoruen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.		
Deskripzioa:			
Udalerrian dauden lurzoru kutsatuak identifikatuko dira (kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta), eta plangintza bat egingo da inbentario horretan dauden udal titulartasuneko lurzoruak berreskuratzeko.			
Bestalde, kutsadura-azterlan bat egingo da Matxariako ibilgailuen parkearen lurzoruari buruzkoa.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000 - 15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena/Hirigintza	Beste arduradun batzuk	
Gaia	4. LURZORUAK	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.1.5

Azitaingo Industrialdean, lur azpiko uren eta gasen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea**PROGRAMA.**

2.1 Airearen eta lurzoruen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.

Deskripzioa:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordearen 2008ko abuztuaren 11ko ebazpenaren laugarren atala betetzeko, zeinaren bidez Azitaingo Industrialdearen lurzoruen kalitatea deklaratu den, beharrezkoa da urtero lur azpiko uren kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea. Hala, 2007az geroztik urtero egiten dira kontrol- eta jarraipen-kanpainak, eta Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzaren balorazio-txosten baten arabera, 2017ko azaroaren 28koa, gutxienez kontrol- eta jarraipen-kanpaina gehigarri bat egin beharko da gutxienez urtebetez, aldi hidrologiko desberdinetan (ur handikoaldiak eta ur emari urrikoak)

Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €.		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.1.6 Airearen kalitateari eta zaratari buruzko informazioa herritarren esku jartzea			
PROGRAMA.	2.1 Airearen eta lurzoruen kalitatearen kontrola eta jarraipena egitea, eta kutsadura akustikoari aurre egiteko neurriak hartzea.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da herritarrei herriko airearen eta zarataren kalitatearekin lotutako informazioa helaraztea formatu eskuragarri eta ulerterrazean. Hainbat bitarteko erabiliko dira informazio hau aldizka helarazteko (udal web-orria, tokiko prentsa, sare sozialak, etab.).			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.2.1 Udalean hondakinak gaika biltzearen emaitzak aztertzea eta jarraipen etengabea egitea.			
PROGRAMA.	2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren hobekuntzan aurrera egitea		
Deskripzioa:			
Ekintzaren helburua da zatikiak biltzearen emaitzak etengabe aztertzea, hondakinen esparruan erabakiak hartzeko informazioa eskuragarri izateko xedez. Bereziki azpimarratuko dira biohondakin eta errefusaren zatikiak. Biohondakinaren kasuan, azken zatikia izan zen herri osoan ezarri zena eta beharrezkoa da informazioa eskuragarri izatea, haren eraginkortasuna ebaluatzeko eta, gabeziarik antzemanaz gero, zuzendu ahal izateko. Errefusaren kasuan, 2017ko abenduan jarri zen txipekiko edukiontzi grisa, hortaz, beharrezkoa da aztertzea zer eragin izan duen aldaketa horrek hondakinen biltzea-sisteman. Bultzatuko da Mankomunitateak beste udalerrri batzuetan emaitza onak eman dituzten eta Eibarren ezar daitezkeen sistemen esperientzia-pilotuak martxan jartzea.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	7. HONDAKINAK	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

2.2.2**Udalerrian egiten diren ekimenetan eta jaietan kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa egokia sustatzea.****PROGRAMA.**

2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren hobekuntzan aurrera egitea

Deskripzioa:

Ekintza honen helburua da kalean egindako ekitaldietan sortzen diren hondakinak murriztea sustatzea eta haien gestio egokia egitea. Horretarako, sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpainak egingo dira herritarrei, ikastetxeei, etab. zuzenduak, eta helburua lortzeko behar diren bitartekoak eskura jartzeko aukera aztertuko da (edalontzi berrerabilgarriak, ontzi konpostagarriak...).

Gainera, ekitaldi/jai bakoitzaren ostean, antolatzaileekin batera egingo da balorazio partekatu bat, martxan jarritako neurrien eragina eta emaitzak ebaluatzeko. Bestalde, jai jasangarrien dekalogo bat egingo da herritarren artean zabaltzeko (udal web-orriaren bidez, liburuxkak, kultur agenda, etab.). Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekitaldien dekalogo bat egingo da, Udaleko sailetan, ikastetxeetan, elkarteetan... banatuko dena.

Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Kultura
Gaia	7. HONDAKINAK	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

2.2.3

Hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena sustatzea, sentsibilizazio-kanpainak eta ekintza zehatzak eginez herritarrei oro har eta sektore jakin batzuei zuzenduak, hala badagokio, Mankomunitatearekin lankidetzan.

PROGRAMA.

2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren hobekuntzan aurrera egitea

Deskripzioa:

Hondakinen prebentzioari (nagusiki), berrerabilpenari eta gestio egokiari buruzko ezagutzak hobetzeko eta sentsibilizazio handiagoa lortzeko asmoz, herritarrei eta udalerriko hainbat sektoreri zuzendutako ekintzak egitea aurreikusten da:

- Ingurumen-hezitzaileen kanpainak hondakinen bereizketa hobetzeko.
- Hondakinak prebenitzeko Europako Astea ospatzea
- Ekonomia zirkularreko kanpainak hondakinak berrerabiltzearen eta birziklatzearen garrantziaz kontzientziatzeko (adibidez bigarren eskuko azokak).
- Hondakinak murrizteko kanpainak edo sortzaile handiekin (komertzioak, etab.)

Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	50.000-80.000 € (Urteko/15.000 euroko partida bat gordetzen da ekintza honetarako)		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Debabarrena mankomunitatea
Gaia	7. HONDAKINAK	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

2.2.4

Kontsumo arduratsua sustatzea eta elikagaiak alferrik xahutzea prebenitzea inplikaturako eragileekin koordinatuta (komertzioak eta azalera handiak, ikastetxeak, ostalaritza, etab.)

PROGRAMA.

2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren hobekuntzan aurrera egitea

Deskripzioa:

Ekintza honen helburua da dendetako, taberna/jatetxeetako, azalera handietako, jangeletako... zaborretan amaitzen duten kontsumitzeko moduko elikagai-kopurua murriztea. Horretarako, lehen diagnostiko bat egingo da arazoa nolabait kuantifikatzeko eta, aldi berean, ekintza zehatzak planteatzeko arazoa handiago diren sektoreetan

Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Garapen Ekonomikoa / Debabarrena Mankomunitatea
Gaia	7. HONDAKINAK	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

2.2.5 Udal bulegoetan hondakinen gestioa hobetzea

PROGRAMA.	2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren hobekuntzan aurrera egitea		
Deskripzioa:			
<p>Ekintza honek udal bulegoetan ere jartzen du fokua, izan ere, hondakin pila bat sortzen da espazio horietan, eta, gainera, kontuan izan behar da administrazio publikoaren jardun eredugarriaren garrantzia.</p> <p>Horretarako, lehenik diagnostiko parte-hartzaile bat egitea planteatzen da, gaur egungo egoera zein den ezagutzea ahalbidetuko duena (sortutako hondakinak, gaikako bilketaren egoera, gaika bereizteko zailtasunak, etab.). Lehen analisi horretatik abiatuta, ekintza zehatzak planteatuko lirateke bulego bakoitzerako.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	7. HONDAKINAK	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

2.2.6 Udalerrian minipuntu garbiak eta balio anitzeko edukiontziak jartzea hondakin solido txikiak jasotzeko, betiere berrerabili edo birziklatzeko modukoak badira.

PROGRAMA.	2.2 Hondakinak gaika biltzeko sistemaren prebentzioan eta hobekuntzan aurrera egitea		
Deskripzioa:			
<p>Mankomunitateak udalerrian 3 puntu garbi ezartzea aurreikusita dauka, garbigunea herritarren etxera gerturatzeko. Ekintza honekin puntu horiek ezartzea bermatu nahi da, bai eta haien erabilpenaren jarraipen bat egitea ere, edukiontzi mota eta kopurua handitzeko edo aldatzeko beharra dagoen ala ez aztertzeko.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	DEBABARRENA MANKOMUNITATEA	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	7. HONDAKINAK	Aalborgeko konpromisoa	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

2.3.1 Uraren kontsumo arduratsuari eta saneamendu-sarearen erabilera egokiari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
<p>Ekintza honen helburua da herritarrak inplikatzeko uraren kontsumo arduratsuan eta saneamendu-sarearen erabilera egokian. Horretarako, bi ekintza zehatz planteatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio-kanpaina bat egitea • Uraren erreziboan mezu zuzenak sartzea uraren zikloari buruz, zerbitzuaren kostuari buruz, erabilera desegokiagatik saneamendu-sarean sortzen diren arazoei buruz, etab. 			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.3.2 Isurketen arloko araudia betetzen dela egiaztatzeko ekintzak planifikatzea eta lehenestea.			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
<p>Udalak Ur Kontsurtzioarekiko komunikazioa eta koordinazioa sustatuko du antzemandako edozein isurketa-arazoren berri emateko, eta aldizkako bilerak bultzatuko ditu egoera zein den elkarrekin aztertzeko. Ur Kontsurtzioak egindako udalaren isurketa-kontrolaren urteko txostenetik abiatuta, kolektorerara isurtzeko baimenik ez duten enpresa guztiei eskatuko zaie baimena eskatu edo eguneratzeko.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.3.3 Udalaren kontsumoan, ura berrerabiltzeko ekintzak sustatu eta garatzea			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
Helburua da lorategiak ureztatzeko edo bideak garbitzeko bezalako erabileretarako ur edangarriaren kontsumoa murriztea Horretarako, lehenik, kokapenak aztertu beharko dira ur ez edangarria biltzeko depositu bat jartzeko, halako moldez non ur hori erabili ahalko den kaleak garbitzeko, berdeguneak ureztatzeko, etab. Aztertu egingo da udal igerilekuen ura berrerabiltzeko aukera (araudiari jarraituz, behartuta daude beren bolumenaren % 5 egunero berritzeko)			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Obrak / Zerbitzuak / Kirol Patronatua / Mankomunitatea
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.3.4 Udalerrian ureztatzeko telegestio-sistema bat ezartzea			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
Ureztatzeko telegestio-sistemekin, sentsoreak jarrita lortzen da ur-kontsumoaren efizientzia hobetzea, hala, behar duten guneetara bakarrik helduz eta beharrezkoa den denboran. Sistema horiek, gainera, gerta daitezkeen ihesak antzematea ahalbidetzen dute, eta era horretan arindu egiten da haien konponketa. Sistema horiek modu progresiboan ezarriko dira. Egun, jarrita daude dagoeneko Mogelen, Ipuruan, Amañan eta Bidebarrietan, eta aurreikusita dagoen hurrengo lekua erdigunea da, Txaltzazelaitik hasita. Ezarrita dauden sistemen kasuan, aztertu egingo da haien erabilera, eta, ahal den neurrian, zuzendu egingo da funtzionamendua edo konpondu baldin eta hondaturik balego. Halaber, aztertu egingo da eraikuntza-sustatzaileei ea urbanizazio berrietan (Ospitale berriaren inguruan egin den bezala) ureztatzeko halako telegestio-sistemak ezartzea exijitu dakiekeen.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	50.000-80.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.3.5 Ura aurrezteko sistemak ezartzea eraikinen eta udal ekipamenduen ur-kontsumoaren efizientzia areagotzeko			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
Aurrezpen-sistemen instalazioa osatu egingo da, udal bulegoetan ur-kontsumoa murrizteko xedez, kontsumo handiena duten ekipamenduei arreta berezia eskainiz (igerilekuak eta kiroldegiak).			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Obrak	Beste arduradun batzuk	Zerbitzuak
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.3.6 Udal eraikinen ur-kontsumoak aztertzea eta kontsumoen kontrol- eta jarraipen-sistema bat ezartzea			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da udal ekipamenduetan ur-kontsumoa monitorizatzea eta murriztea. Horretarako, honako ekintza hauek egingo dira:			
<ul style="list-style-type: none"> • Eraikin bakoitzaren kontsumoak aztertzea (kontagailu bat jartzea beharrezkoa denean) • Ekintzak identifikatu eta ezartzea kontsumoak murrizteko, lehentasuna emanez hobekuntza-marjina handiagoa dagoela irizten diren eraikinei. 			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena / Gipuzkoako Urak
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.3.7 Udalerrian, iturburukoak diren iturrien ur-kalitateari buruzko informazioa ematea			
PROGRAMA.	2.3 Uraren kontsumo arduratsua bultzatzea eta udalerriko enpresek isurketen arloan arauak betetzen dituztela kontrolatzea		
Deskripzioa:			
Berrikusi egingo da iturburukoak diren iturrien seinalizazioa eta kartelak jarri/ordeztu egingo dira, kontsumorako edangarria ez den ura duten iturrietan.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 - 1.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	5. URA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

2.4.1 Udalerriko enpresa-ehunaren ingurumen-portaerari buruzko ezagutza hobetzea eta ekintzarako lehentasunak ezartzea			
PROGRAMA.	2.4 Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen-gestioa hobetzea		
Deskripzioa:			
<p>2017an Eibarko Udaleko Ingurumen sailak proiektu bat jarri zuen martxan ezagutzeko zer egoeratan dauden izaera industrialeko enpresak ingurumen-obligazioei dagokienez, behin diagnostikoa eginda, hobekuntza-jarduerak elkarlanean egiteko (Udala-enpresak), ingurumen jarduera egokiak ezartzeari begira. Proiektuan parte hartzeko interesa izan zuten industria-izaerako 39 enpresekin, txosten bat egin zen egindako diagnostikoa jasotzen zuena eta halaber jarduerak planteatzen zituena enpresei ingurumen-eskakizunetara egokitzen laguntzeko: enpresei laguntzea lege-baldintzak betetzen, hondakinen kudeaketa hobetzen, energiaren efizientzia hobetzen, etab. Baloratuko da ea premiarik dagoen arazoak xehetasun gehiagoz ezagutzeko beste azterlan batzuk egiteko eta parte hartu duten elkarteen baliabideak eta lankidetzak baliatuko dira.</p> <p>Bestalde, Eibarko Pymeak planak, Garapen Ekonomikoaren sailak martxan jarritakoak, bide emango die 15 industria-enpresari laguntza espezializatu eta indibidualizatu bat izateko lehiakortasunaren hobekuntza-plan bat definitu eta gauzatzeko, honako hauek eginez: lehiakortasunaren diagnostikoa (ingurumen-dimentsioa barne), ekintza-planen diseinua, ibilbide-orriaren definizioa plan horiek gauzatzeko eta ekintzak inplementatzea.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	35.000 - 50.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Garapen Ekonomikoa / Debegesa
Gaia	9. UDALEKOAK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA: BIZIA ETA JASANGARRIA

2.4.2**Enpresak ingurumen-araudira egokitzea sustatu eta erraztea**

PROGRAMA.	2.4 Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen-gestioa hobetzea		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da ingurumen arloan laguntza teknikoa eta trebakuntza ematea, indarrean dagoen araudira egokitzea errazteko. Planteatzen diren hobekuntza-ekintzen artean 2018an egingo diren honako hauek daude: lege-gida bat egitea, doako trebakuntza-plan bat eta Laguntza Teknikoko zerbitzu bat (SAT.ingurumena). Halaber, proposatzen da lantaldeak eratzea eta tailerrak egitea alde zuzenetik inplikaturako eragileekin identifikaturako eduki jakinei buruz. Dauden elkarten bitartekoak eta lankidetzak erabiliko dira.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Garapen Ekonomikoa / Debegesa
Gaia	9. UDALEKOAK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA: BIZIA ETA JASANGARRIA

2.4.3**Udalerriko jarduera ekonomikoetan ingurumen-jardunbide egokiak har daitezela bultzatzea**

PROGRAMA.	2.4 Udalerriko jarduera ekonomikoen ingurumen-gestioa hobetzea		
Deskripzioa:			
Ekintza honekin proposatzen da harago joatea eta proiektu berritzaileak sustatzea udalerriko jarduera ekonomikoetan ingurumen-hobekuntza nabarmena eragingo dutenak (akordioak zentro teknologikoekin, finantzazio-iturriak identifikatzea, Europako proiektuetan parte hartzea, etab.).			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Garapen Ekonomikoa / Debegesa
Gaia	9. UDALEKOAK EZ DIREN ERAKUNDEEN INGURUMEN GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	8. TOKIKO EKONOMIA: BIZIA ETA JASANGARRIA

3.LE. NATURA-INGURUNE ETA HIRI-INGURUNEAREN GESTIO INTEGRAL BAT EGITEA, ESPAZIO DEGRADATUAK BERRESKURATZEA BULTZATUZ

3.1.1. Udalerriko ingurumen-ondarearen inbentarioa egitea eta handik sortutako neurrien inplementazioa baloratzea, udalerriko biodibertsitatea eta naturaguneak babesteko.			
PROGRAMA.	3.1 Udalerriko ingurumen- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
Ekintzaren helburua da Eibarko natura-ondareari eta haren kontserbazio-egoerari buruzko diagnostiko bat izatea, ondarea babesteko eta kontserbazioa hobetzeko erabakiak hartzera eta lan-ildoak identifikatzera bideratua.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.2 Udalerriko (Arrate, Santa Kurutz, Usartza, Kalamua eta Akondia) ingurune babestuen guneen planifikazioa, jarraipena eta kudeaketa egitea.			
PROGRAMA.	3.1 Udalerriko ingurumen- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
Eibarko Natura Ondarearen Inbentarioan lortutako emaitzekin, udal partzela guztien zerrenda bat egingo da, haien egoera zein den adieraziz eta gestio hobea izateko planteamendu bat eginez. Era berean, beste partzela batzuen gestio-tresnak baloratuko dira, ingurumen-babesaren arloak egoki kudeatzeko xedez.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.3 Debemenekin elkarlanean aritzea, lehen sektorea sustatzeko Planean ingurumen-aldagaia txertatzeko			
PROGRAMA.	3.1 Udalerriko natura- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
Debemenekiko lankidetzaren helburua da udalerriko landa-ingurunearen bizi-baldintzak hobetzea eta lehen sektorea sustatzeko Planean ingurumen-aldagaia sartzea.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Debemen.
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.4 Ermua-Eibar ibai-parkearen exekuzioa bultzatzea, Deba ibaia Proiektuaren baitan			
PROGRAMA.	3.1 Udalerriko natura- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
Ibai-parkea eraikitzeko proiektuaren koordinazioan eta exekuzioan parte hartzea, berdegune zabal bat eta oinezkoen pasealeku bat lortzeko, eta Eibar eta Ermua arteko komunikazioak hobetzeko, bai eta erabilerarik gabeko gunek bat berreskuratzeko ere.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena/Hirigintza	Beste arduradun batzuk	Obrak / Ermuko Udala / Zaldibarko Udala / URAK
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.5 Herriko ubide eta ibaiertzak mantendu eta garbitzeko egin beharreko ekintzen planifikazioa eta jarraipena			
PROGRAMA.	3.1 Udalerriko natura- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
<p>Udalak bere gain hartu behar ditu herriko ubide eta ibaiertzak mantentzeko eta garbitzeko ardura. Horretarako, lehenik sinatu egingo da Uraren Euskal Agentziaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmena. Hitzarmen horren arabera, Agentziak ingurumena berreskuratzeko eta ahalmen hidraulikoari eusteko jarduerak egingo ditu, eta Udalak, bere aldetik, hondakinak erretiratzeko, jabari publikoan eraginez udal azpiegituretan ahalmen hidraulikoari eusteko, eta udal azpiegiturek mantentzeko jarduerak egingo ditu Urteko plangintza horretan sartzen dira boluntarioen esku-hartzeak, sentsibilizazio-jarduerak... betiere ubideen eta ibaiertzen kontserbazio eta berreskuratzearekin lotuak egongo dira.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena / Debegesa
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.6 Espezie inbaditzaileak prebenitzeko eta kontrolatzeko ekintzak martxan jartzea			
PROGRAMA.	3.1 Udalerriko natura- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
<p>Ekintzaren helburua da jarraipena ematea azken urteotan espezie inbaditzaileak kontrolatzeko hainbat entitatekin batera (Debegesa, eskualdek beste udal batzuk, Gipuzkoako Foru Aldundia, etab.) egiten ari den lanari:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Flora inbaditzailea desagerraraztea eta jarraipena egitea, erauzi ondoren eraberritze gutxieneko bat eginda. • Egiten diren ekintzen berri ematea, egiten diren lanak herritarrei ezagutarazteko. 			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Zerbitzuak / Debegesa
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.7**Basoberritze-ekintzak egiten jarraitzea**

PROGRAMA.	3.1 Udalerriko natura- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
<p>Neurri honekin jarraipena eman nahi zaio azken urteotan udalerriko basoberritzearen arloan egiten ari diren lanei, bertako espezieak berreskuratzearen alde eginez. Horretarako, jarraitu egin behar da Lindari, Usartza eta Iturburuko partzelen urteroko mantentze-lana eta jarraipena egiten. Arbolaren Eguna ospatzen jarraituko da; udal partzela berriak bilatu beharko dira. Baloratu egingo da babes-hitzarmen berriak sinatzea, pinu eta eukaliptoen basoak beste espezie autoktono batzuekin ordeztzeko. Baloratu egingo da babes-hitzarmen berriak izenpetzea eta lursailak eskuratzeko beste modu batzuk (erostea, desjabetzea, etab.), pinu eta eukaliptoen basoak beste espezie autoktono batzuekin ordeztzeko.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	15.000-35.000 € (3.400 €/urteko partida bat gordetzen da)		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.1.8**Jasangarritasun-irizpide batzuk garatzea, lorategien eta berdeguneen diseinuan txertatzeko**

PROGRAMA.	3.1 Udalerriko natura- eta landa-ondarearen gestio eta kontserbazio egokia egitea		
Deskripzioa:			
<p>Ekintza honen helburua da hiri-parkeek eta lorategiek hiri-ekosistemaren biodibertsitatearen kontserbazioan jokatzen duten papera indartzea eta balioan jartzea. Horretarako, biodibertsitatearen kontserbaziorako irizpide batzuk definitu eta aplikatu behar dira, bai espazio horien diseinurako bai gestiorako, lan horietaz arduratzen diren lorazaintza-enpresei ezagutarazi, eta herritarrei jakinarazi informazio-kartelen bidez, prentsaren bidez...</p>			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Baxua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Obrak / Zerbitzuak
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.2.1 Hiri-ortu ludikoak jartzea aztertzea.

PROGRAMA.	Ingurune naturalaren balioak herritarrei gerturatu eta ezagutzera ematea		
Deskripzioa:			
<p>Hiri-ortuen bidez eibartarrei ortuen espazio bat erabiltzeko aukera eman nahi zaie xede ludikoetarako eta lurraren erabilera jasangarri batean oinarriturik. Espazio egoki dimentsionatzeko helburuz, herritarrek ea interesik duten ezagutzeko aukera baloratuko da.</p> <p>Aztertu egingo da dagoen aurreproiektua Sakun aldean hiri-ortuak egiteko. Halaber, beste lursail posible batzuk identifikatuko dira. Lursailaren egokitze-obrei ekin aurretik proiektu bat egingo da (ortuak zedarritzea, lurra prestatzea, kaxetak lanabesak gordetzeko, etab.). Ortu ludikoak jartzeak haiek erabiltzeko araudi bat ezartzea ekarriko du.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Obrak
Gaia	2. BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-INGURUNEA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.2.2 Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeetan ortuak sortzea bultzatzea

PROGRAMA.	Natura-ingurunearen balioak herritarrei gerturatu eta ezagutzera ematea		
Deskripzioa:			
<p>Helburua da bultzatzea herriko ikastetxeek orturako espazioa bat izatea, jarduera pedagogiko bat gara dezaten lurraren erabilera jasangarriaren, elikaduraren, biodibertsitatearen inguruan, etab. Horretarako, Udalak aztertu egingo ditu ikastetxeek ortuak sortzeko jasotako eskaerak. Gainera, informazioa emango zaie ikastetxeei eta haiek martxan jartzeko eta zaintzeko jarraibideak emango zaizkie.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Obrak
Gaia	14. HEZKUNTZA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.2.3 Bidezidor-sare bat egokitu eta sustatzea, Eibarko aberastasun natural, kultural eta paisajistikoa erakusteko

PROGRAMA. Natura-ingurunearen balioak herritarrei gerturatu eta ezagutzera ematea

Deskripzioa:

Helburua da udal-mugaratean dauden bidezidorrak ezagutzea eta haien erabilera arduratsua sustatzea. Lehenik, bidezidorrak identifikatu eta lehenetsi egingo dira (Debemenek egindako inbentario bat dago bide publiko asfaltatuena, hortaz, aztertu egingo dira baita ere gehien erabiltzen diren asfaltatu gabeko bide publikoak), eta ingurunean seinaleak eta informazioa jarriko dira.

Gainera, zabalkunderako materialak egingo dira. Halaber, Ibilixan proiektuan sartutako ibilbide osasuntsuen sarea zabaltzea planteatuko da.

Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	35.000-50.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.2.4 Sentsibilizazio-kanpainak egitea, natura-ondarearen (Zuhaitz eguna, etab.) babes eta kontserbazio-alarrean

PROGRAMA. Natura-ingurunearen balioak herritarrei gerturatu eta ezagutzera ematea

Deskripzioa:

Herriko natura-ondarea ezagutarazteko jarduerak planifikatuko dira, herritar guztiei zuzenduak, egun seinalatuak aprobetxatuz, hala nola Zuhaitz Eguna. Halaber, natura-ondarearen azterlana izan ondoren, ekintza zehatzak egingo dira haren zabalkundea egin eta jakitera emateko.

Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborgeko konpromisoa	3. NATURA-ONDASUN KOMUNAK

3.3.1 Jasangarritasun-irizpideak eta klima-aldaketara egokitzekoak sartzea HAPOnen berrikusketan			
PROGRAMA.	3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuen berreskuratzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Egun diagnostikoa amaitzen ari da. Aurrerago diagnostikoaren aurrerapen bat egingo da eta 2020an aurreikusita dago HAPOnen berrikusketari ekitea.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	1. LURRALDEA ETA ANTOLAKETA	Aalborgeko konpromisoa	5. PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-DISEINUA

3.3.2 Udalerrian berdeguneak handitzea edota berriak sortzea bultzatzea			
PROGRAMA.	3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuak berreskuratzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Berdeguneek onura ugari dakarkiotte bizi-kalitateari eta mesede egiten diote pertsonen ongizateari: temperatura eta hezetasuna erregulatzen dute, zarata gutxitu, oxigenoa sortu, kutsatzaileak iragazi eta xurgatu egiten dituzte, etab.			
Gainera, klima-aldaketarako egokitzapenaren ikuspegitik, gero eta gehiago apustu egiten ari da NBS (naturan oinarritutako soluzioak) izenekoan alde; izan ere, kostu-etekin erlazio ona dute, eta koetekin ematen dituzte.			
Ekintzaren helburua da udalerrietako hiri-ingurunea berdatzea sustatzea, alferrikako lurak baliatzea, irla-patioak, aparkalekuak, etab.			
Bestalde, bidezkoak diren gestioak egingo dira (adibidez hitzarmenak), eraikinak botatzeagatik hutsik geratzen diren espazioak eta parking gisa erabili ezin direnak —baldin eta baldintzak aldekoak badira— aldi baterako parke edo berdegune izateko birmoldatu daitezzen.			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Obrak
Gaia	1. LURRALDEA ETA ANTOLAKETA	Aalborgeko konpromisoa	5. PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-DISEINUA

3.3.3 Asua Erreka inguruaren hobekuntzan ingurumen-aldagaia sartzea

PROGRAMA.	3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuak berreskuratzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Esku-hartzea ontzat eman ondoren, beharrezkotzat jotzen da jabetzarekin akordioak bilatzea Asua Erreka eta Arane ingurua hobetze aldera, ingurumen-irizpideak sartuz eta erabilera mistoak izateko aukerak aztertuz, izan ere HAPO berrian aztertuko da hori.			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	1. LURRALDEA ETA ANTOLAKETA	Aalborgeko konpromisoa	5. PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-DISEINUA

3.3.4 Matxaria berrizteko Planean ingurumen-aldagaia sartzea

PROGRAMA.	3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuak berreskuratzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Matxaria, auzo degradatua eta industria-iragan aberatsekoa, eredu izan behar da ingurunearekin eta pertsonekin errespetuz egindako biziberritze baten printzipioak aplikatzeko. Ibaia modu partzialean edo osoan berreskuratzea, egoera onean dauden industria-eraikinak baliatzea eta berrerabiltzea, edo oinez zein bizikletaz egiteko trazatuak hobetzea, ibilgailuen trafikoa minimizatuz, kontuan hartu beharko dira Matxariako etorkizunean, esku-hartzeari oniritzia eman ondoren. Horretarako, analizatu egingo dira erabilera mistoak izateko aukera, zeina HAPO berrian aztertuko den.			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	1. LURRALDEA ETA ANTOLAKETA	Aalborgeko konpromisoa	5. PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-DISEINUA

3.3.5 Erdigunean eta auzoetan espazio publikoaren kalitatea hobetzea (hiri-akupuntura plana eta auzoko bihotzak)			
PROGRAMA.	3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuak berreskuratzea sustatzea		
Deskripzioa:			
<p>Helburua da auzo bakoitzean erdigune bat gaitzea, inguruneke jarduera soziala eta komertziala garatzeko. Hainbat esku-hartze egingo dira, eta fokua goi auzoetan jarriko da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bankuak espazio publikoetan 2. Eserleku mugikorak espazio publikoetan 3. Hiri basoa 4. Haurrentzako iturriak <p>Esku-hartze horiek ingurumen-irizpideak kontuan harturik egingo dira.</p>			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	>80.000 €		
Arduradun nagusia	Obrak / Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	1. LURRALDEA ETA ANTOLAKETA	Aalborgeko konpromisoa	5. PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-DISEINUA

3.3.6 Dirulaguntza-lerroak sortzea fatxadak zaharberritzeko eta erabiltzen ez diren industria-eraikinak sustatzeko			
PROGRAMA.	3.3 Hiri-espazioaren hobekuntza eta espazio degradatuak berreskuratzea sustatzea		
Deskripzioa:			
<p>2019an, Hirigintza sailak bi dirulaguntza-lerro jarriko ditu martxan: bata eraikin bakartuetan finkatutako jarduera ekonomikoen fatxadak eraberritzeko eta bestea erabiltzen ez diren eraikin industrialen eraberritze osoa edo partziala egiteko.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	80.000 € (30.000 € lehen dirulaguntza-lerroa eta 50.000 € bigarrena)		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradun batzuk	
Gaia	1. LURRALDEA ETA ANTOLAKETA	Aalborgeko konpromisoa	5. PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA-DISEINUA

4. LE. MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA BAI HERRI BARRUKO JOAN-ETORRIETAN BAI HERRIARTEKOETAN ERE

4.1.1 Auzoen eta erdigunearen arteko konexio eroso errazten duten oinezkoen lehentasunezko ardatzak definitzea			
PROGRAMA.	4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Oinezkoen lehentasunezko ardatzen definizioak honako helburu hauek ditu:			
<ol style="list-style-type: none"> 1. Identifikatzea zein diren erdigunearekin lotzeko babestu beharreko ibilbideak. 2. Aprobetxatzea dauden bitarteko mekanikoak. 3. Aukeratzea hobetu beharreko espaloi-zatiak. 4. Mantentzea aparkaleku-horniketen oreka. 5. Ziurtatzea hiri-inguruneko irisgarritasuna. 			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.1.2 Erdiguneko espaloiak hobetzeko plan bat egitea, oinezkoen ardatz nagusi bat sortzera bideratua, udalerriko erdiguneko jardueragune nagusiak lotuko dituen			
PROGRAMA.	4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Planak honako helburu hauek izango ditu:			
<ol style="list-style-type: none"> 1. Trafiko Planetik jasotzea zer kale-zatitan ken daitezkeen errodadura-erriak. 2. Aparkalekuak kudeatzeko planarekin koordinatzea zer zati bideratzen diren espaloirako eta zer zati aparkalekurako, lehentasuntzat jarriz jarduera-espazio nagusiak konektatzea. 3. Ibilbideen hobekuntzan esku-hartzea espaloiak zabalduz eta beste neurri batzuk hartuz. 			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Obrak	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.1.3 Udalerriko ikastetxeetan Eskolarako Bidea ekimena ezartzeko aukera baloratzea			
PROGRAMA.	4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Helburua da herriko ikastetxeekin eskolarako bidearen ekimena ezartzeko aukera baloratzea; ekimen hori eskualdeko beste herri batzuetan egiten da eta umeak modu seguruan ikastetxera joatea sustatu nahi du. Identifikatuko da zein diren martxan jartzeko dauden oztopoak eta zailtasunak, ikastetxeen premien arabera planteamendu bat egiteko.			
Epea	Luzea	Lehentasuna	Baxua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.1.4 Herriko bide-sarean bizikleta sartzea, bidegorriak sortuz eta bizikleta-autoa/bizikleta-oinezkoa konbibentzia guneak eratuz			
PROGRAMA.	4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea		
Deskripzioa:			
Ekintzaren helburua da bizikleta modu progresiboan sartzea herriko bide-sarean. Aurreikusita dago: <ol style="list-style-type: none"> 1. Azitain-Maltzaga bidegorria eraikitzea. 2. Ardantzatik Amañarainoko bidegorria eraikitzea. 3. Eztaziño kalea-Azitain (trenbideak estaltzea) bidegorria eraikitzea. 4. Bidegorria Amañatik etorkizuneko ibai-parkearekin konektatzea. "Sarea" osatzea partekatutako kaleekin, bizikleten erabiltzaile-bolumen esanguratsua agertu ondoren eta hiri-sarea nahiko lasaitua dagoenean, gidariak ohituta egongo baitira ziklisten presentziara. 			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Obrak	Beste arduradun batzuk	Hirigintza
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.1.5 Bizikletak aparkatzeko leku batzuk egotea bermatzea beharren arabera egokituak eta bizikletentzako espazio seguruak gaitzea herriko gune batzuetan			
PROGRAMA.	4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea		
Deskripzioa:			
<p>Bizikleta erabiltzeko beharrezko azpiegituretako bat aparkalekua da. Bai komunitateetan, ikastetxeetan, enpresetan bai herriko hainbat puntutan aparkaleku nahikoak egon behar dira.</p> <p>Zuzkidura aztertuko da eta osatu egingo da beharrezkotzat jotzen den puntuetan. Bizikleten aparkalekuez gain, beste ekipamendu batzuk jarriko dira bizikleten erabilera sustatzen dutenak (bizikleten garbilekua, aire-konpresore doakoak, etab.).</p>			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.1.6 Mugikortasun jasangarriaren arloan heziketa- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea			
PROGRAMA.	4.1 Hiri barruko joan-etorrietan, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea		
Deskripzioa:			
<p>Heziketa- eta sentsibilizazio-kanpainak egingo dira, herrian mugikortasun jasangarria sustatzeko, herritarrei oro har zuzenduak eta kolektibo zehatzei (pertsona nagusiak, eskolako ikasleak, etab.). Jarduerak egingo dira mugikortasunaren astean eta, modu osagarrian, sentsibilizazio-ekintza zehatzagoak proposatuko dira, mugikortasun jasangarria ahalbidetzera bideratutako proiektuekin lotuak.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.2.1 Autobus Geltokiaren ingurua eta haren irisgarritasuna hobetzea

PROGRAMA.	4.2 Garraio publikoa eta garraiobide ez-motordunak sustatzea, beste herrietara egindako joan-etorrietan		
Deskripzioa:			
Autobus-geltokiko nasak berrantolatzeko proposamena egitea, oinezkoentzako espazioa irabazteko eta ingurunearen irisgarritasuna hobetzeko. 2019an, proposamenen azterketa bat egingo da nasak berrantolatzeko.			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza	Beste arduradun batzuk	Obrak
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.2.2 Eskari bidezko garraio-plan bat martxan jartzea baserri-auzoetan sakabanatutako guneei zerbitzua emateko

PROGRAMA.	4.2 Garraio publikoa eta garraiobide ez-motordunak sustatzea, beste herrietara egindako joan-etorrietan		
Deskripzioa:			
Badira 400 pertsona inguru (landa-inguruneak nagusiki) garraio publikoaren irismenetik at daudenak. Horregatik da gomendagarria eskaeraren arabeko garraio-sistema bat ezartzea, Taxibus zerbitzura gehituko dena, eta pertsona horiei zerbitzua emango dena.			
Zerbitzuaren esperientzia eta modalitate desberdinak aztertuko dira baloratzeko zein den udalerrira ondoen egokitzen dena. Behin zerbitzu hori erabaki ondoren, proba pilotu bat egingo da zerbitzua testatzeko eta erabiltzaileen premietara egokitzeko.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.2.3 Aldameneko udalerriekin lotzeko bidegorrien exekuzioa bultzatzea eta jarraipena egitea			
PROGRAMA.	4.2 Garraio publikoa eta garraiobide ez-motordunak sustatzea, beste herrietara egindako joan-etorrietan		
Deskripzioa:			
Jarraipen bat egingo zaio Ego Arroko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialari, eta egiteko dauden zatiak gauzatzea bultzatuko da (Eibar-Ermua konexioak, Eibar-Elgoibar, Eibar-Soraluze).			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Hirigintza / Obrak	Beste arduradun batzuk	Ingurumena
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.2.4 Markesina eta geltokiak egokitzea eta haien kokapen, mantentze, seinalizazio eta irisgarritasunaren hobekuntzak egitea			
PROGRAMA.	4.2 Garraio publikoa eta garraiobide ez-motordunak sustatzea, beste herrietara egindako joan-etorrietan		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da autobus-geltokien markesinen eta geralekuen mantentze-lan bat egitea, haien irisgarritasuna, seinalizazio egokia eta oro har egoera ona bermatuz (markesina bat ezarri da Untzaga Plazan).			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	35.000 - 50.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.3.1 Udal flotan ibilgailu elektrikoak era progresiboan sartzea

PROGRAMA.	4.3 Udalerrian trafikoa lasaitzea eta ibilgailu eta erregai garbiak erabiltzea bultzatzea		
Deskripzioa:			
<p>Helburua da udal flotaren ibilgailuak modu progresiboan elektrikoak izatea; hortaz, ibilgailu bat ordeztu edo eskuratu behar denean, ibilgailu elektrikoak edo hibridoak erostea. 2017ko urtarrilean erositako azken ibilgailua udaltzaingoarentzako auto hibrido bat izan zen, eta aurreikusita dago 2019an beste ibilgailu bat erostea, hibrido edo elektrikoak. Motorrak erosteko orduan ere baloratuko da motor elektrikoak erosteko aukera, betiere beharrezkoak diren ezaugarriak betetzen badituzte. 2018an aurreikusita dago auto bat erostea udal brigadako nagusiarentzat, eta hori ere hibridoak izango da.</p> <p>Udalak 2020rako lizitaziora aterako du "Eibarko Udalerriko bidaiarientzako hiri-garraio zerbitzua (Udalbus)", 10 urteko aldi baterako. Aztertu egingo da udalbus hibrido edo elektriko baten aukera.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Beste arduradun batzuk	Ingurumena / Kontratazioa / dirulaguntzak eta
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

4.3.2 Udalerrian ibilgailu elektrikoaren eta beste mugikortasun-bitarteko jasangarri batzuen erabilera bultzatzea

PROGRAMA.	4.3 Udalerrian trafikoa lasaitzea eta ibilgailu eta erregai garbiak erabiltzea bultzatzea		
Deskripzioa:			
<p>Gaur egun % 75eko hobari bat dago udal zirkulazioaren zergan elektrikoak edo hibridoak diren ibilgailuentzat. Ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzen jarraitzeko, beste aukera batzuk aztertu beharko lirateke, hala nola aparkalekuan tarifa desberdinak jartzeko neurriak, birkargatzako puntuak instalatzea, etab.</p> <p>Halaber, beste aukera batzuk aztertuko dira udalerrian mugikortasun jasangarria sustatzeko (bizikletak eta patinete elektrikoak alokatzeko sistema).</p>			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA

			TRAFIKOAREN MURRIZKETA
--	--	--	------------------------

4.3.3 Trafikoa lasaitzeko Plan bat egitea			
PROGRAMA.	4.3 Udalerrian trafikoa lasaitzea eta ibilgailu eta erregai garbiak erabiltzea bultzatzea		
Deskripzioa:			
Trafikoa lasaitzeko hainbat esku-hartze egingo dira bai errepide-sarean (gidariaren pertzepzioa aldatzeko galtzada estutuz, abiadura-murrizketa derrigorrezkoak pasabide goratuak eginez, etab.), bai oinezkoen espazioan ("belarriak" sartuz pertsona zaurgarrienak babesteko ikusgarritasun handiagoa emateko).			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	> 80.000 €		
Arduradun nagusia	Udaltzaingoa	Beste arduradun batzuk	Hirigintza
Gaia	3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Aalborgeko konpromisoa	6. MUGIKORTASUN HOBEA ETA TRAFIKOAREN MURRIZKETA

5. LE. GOBERNANTZA-EREDU BAT ARTIKULATZEA UDALERRIKO INGURUMEN-POLITIKAK ETA ADMINISTRAZIOA INGURUMEN-IRIZPIDEETARA EGOKITZEA SUSTATZEKO

5.1.1 Ekintza Planaren urteko gestio-dinamika bat finkatzea			
PROGRAMA.	5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne koordinazio-mekanismoak eta herritarrekikoak martxan jartzea eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
Ekintza honen helburua da urtero Ingurumen Ekintza Planaren jarraipen bat egitea bermatzea Udalsarea 21 marko metodologikoaren arabera egingo dena; ekintzen ezartze-maila ebaluatuko da, hurrengo urterako ekintzen programazioa eta tokiko jasangarritasunaren adierazleen kalkulua. Gestio hau, urtero egiten dena, ez da soilik ingurumen-teknikariaren erantzukizuna, ekintzen ardura duten udal teknikariaren lana ere bada. Horregatik da garrantzizkoa koordinazio-mekanismo edo espazio bat artikulatzea (lantaldea, mahaia, batzordea...) eginkizun horri lotua. Talde hori osatu behar duten pertsonak identifikatuko dira eta bilera-egutegi bat ezarriko da helburu zehatzekin.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.1.2 Ingurumen Ekintza Planari lotutako komunikazio- eta kontuemate-estrategia bat definitzea			
PROGRAMA.	5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne koordinazio-mekanismoak eta herritarrekikoak martxan jartzea eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
Komunikazio-estrategia bat definituko da herritarrei ingurumen arloko tokiko ekintza ezagutarazteko. Estrategia horrek kontuan hartuko ditu hartzaileak eta bitarteko ezberdinak erabiliko ditu, aintzat hartuz sare sozialak publiko gazteenarengana iristeko bide bezala.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 .		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	22. GARDENTASUNA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.1.3 Ingurumen Ekintza Plana ezartzeari eta haren urteko gestioari lotutako herritarren partaidetza-eredu bat definitu eta martxan jartzea			
PROGRAMA.	5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne-koordinazioa eta herritarren koordinazio-mekanismoak martxan jartzea, eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
<p>Herritarren partaidetza eredu bat definituko da, Ekintza Planaren urteko gestioari lotua, herritarren partaidetza sustatzeko toki-jasangarritasunerako politiketan.</p> <p>Lehenik, herritarren hainbat partaidetza-eredu eta esperientzia arrakastatsu aztertuko dira, eta alternatibarik onena baloratuko da kontuan hartuta herri-partaidetzaren bilakaera eta uneko horretako egoera, bai eta dauden gizarte-mugimenduak eta auzo-mugimenduak.</p> <p>Partaidetza-eredu hori Udalak onartzen duen herri-partaidetzaren ordenantza berriak arautuko du.</p>			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	20. HERRITARREN PARTE-HARTZEA.	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.1.4 Gogoeta-prozesu bat egitea, udalerriko jasangarritasunerako ekintza-plan baten oinarriak ezarriz eta klima-aldaketaren aldagaia txertatuz			
PROGRAMA.	5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne-koordinazioa eta herritarren koordinazio-mekanismoak martxan jartzea, eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
<p>Ekintza honen helburua da oinarriak jartzea Eibarrentzat toki-jasangarritasunaren plan bat egiteko, diagnostiko zehatz batean oinarrituta egongo dena, eta esku-hartu beharreko lehentasuneko esparruak identifikatuko dituena eta herriaren premien araberrako ekintza-plan definituko duena.</p> <p>Gogoeta egiteko fase bat egongo litzateke hainbat gairen inguruan, hala nola: planaren irismena, egin beharreko prozesu parte-hartzailearen definizioa, planaren indarraldia, kontuan hartu beharreko elementu estrategikoak, klima-aldaketaren aldagaia sartzea, etab.</p> <p>Horretarako, lan-saioak egingo dira Ingurumen Batzordearen markoan, ingurumen sailak dinamizatuak.</p>			
Epea	Ertaina	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.1.5 Agenda 21 programaren planifikazioan, diseinuan eta garapenean parte hartzea, Debegesarekin koordinatuta			
PROGRAMA.	5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne-koordinazioa eta herritarren koordinazio-mekanismoak martxan jartzea, eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
<p>Ekintza honen helburua da Udala gehiago inplikatzeko Eskola Agenda 21 planifikatzeko eta martxan jartzeko eginkizunetan; Agenda 21 Debegesak koordinatzen du 9 ikastetxetan 2002. urteaz geroztik. Halaber, konexioa bilatuko da Eskola Agenda 21 egitasmoaren eta Ingurumen Ekintza Planaren artean.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	Debegesa.
Gaia	21. KOORDINAZIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.1.6 Dirulaguntza-lerro berri bat sortzea, jasangarritasunaren eta ingurumenaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteei zuzendua.			
PROGRAMA.	5.1 , Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne-koordinazioa eta herritarren koordinazio-mekanismoak martxan jartzea eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
Ekintzaren helburua da jasangarritasuna eta ingurumenaren babesa sustatzeko ekintzak egiten dituzten eragileak eta entitateak babestea. Horretarako, dirulaguntzen lerro espezifiko bat diseinatuko da.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	35.000 € (Urteko/5.000 euroko partida bat gordetzen da ekintza honetarako)		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	19. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.1.7 Eibarrek toki-jasangarritasunarekin eta klima-aldaketarekin lotutako erreferentziako foro, espazio eta topaketetan parte hartzea bultzatzea			
PROGRAMA.	5.1 Ingurumen Ekintza Planari lotutako barne-koordinazioa eta herritarren koordinazio-mekanismoak martxan jartzea, eta kontu-ematea sustatzea.		
Deskripzioa:			
Helburua da parte-hartze tekniko eta politikoa bultzatzea izaera ezberdineko foro eta topaketetan, Eibar udalerrri aktibo eta erreferentziakotzat kokatzeko, toki-jasangarritasun eta klima-aldaketaren politika publikoetan. Horrek ahalbidetuko du harreman eta kolaborazio sare bat ehuntzea, herriarentzat interesekoak gerta daitezkeen proiektuetan.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Baxua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.2.1	Ondasunak eta zerbitzuak erosi eta kontratatzean ingurumen-irizpideak sartzea		
PROGRAMA.	5.2 Ondasunen eta zerbitzuen erosketa-pleguetan eta kontratazioetan ingurumena progresiboki lantzea		
Deskripzioa:			
Udalak onartu egin du "Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020". Era horretan, erreferentziatuz hartuz Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Euskal Plana (ezartzen duena 2020rako zer talde eta zerbitzu sartu planean), lehentasunak jarriko dira eta lan-plan bat egingo da, produktuak erostean eta kontratazioetan ingurumenaren irizpideak sartzen joateko.			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena / Kontratazioa eta dirulaguntzak	Beste arduradun batzuk	Udaleko sail guztiak
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.2.2	Udal teknikariei pleguetan ingurumena aintza hartzeko trebakuntza ematea		
PROGRAMA.	5.2 Ondasunen eta zerbitzuen erosketa-pleguetan eta kontratazioetan ingurumena progresiboki lantzea		
Deskripzioa:			
Udal teknikarien trebakuntza elementu beharrezkoa da pleguetan ingurumen-irizpideak sartzen joateko. Identifikatu egingo dira trebakuntza hori behar duten pertsonak, zehaztu egingo dira zer trebakuntza-premia dituzten eta trebakuntza hori emateko bitartekoak bilatuko dira (trebakuntza baliabide propioekin, kanpoko zerbitzu baten kontratazioa, etab.).			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	3.000-15.000 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.3.1**Langileei ingurumen arloko formakuntza ematea**

PROGRAMA.	Udal langileen artean ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzea		
Deskripzioa:			
<p>Ekintzaren helburua da ingurumen arloko trebakuntza sartzeari Udalaren formazio-planaren barruan. Trebakuntza hori orokorra izan daiteke edo alderdi zehatzetan oinarrituta egon, kolektibo espezifikoaren eskarier arabera. Horretarako, honako ekintza hauek egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumenaren arloko sentsibilizazio-programa bat martxan jartzea Udaleko langileei zuzendua. • Ingurumen sailak egiten dituen ekintzen barne-komunikazioa hobetzea. • Ingurumen sailaren webgunea edukiz hornitzea eta aldizka eguneratzea. • Ingurumenaren inguruko jardunbide egokien gida bat egitea udal langile berriei emateko. • Argiaren eta uraren kontsumoa murrizteko pegatinak jartzea udal bulegoetan. 			
Epea	Motza	Lehentasuna	Ertaina
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ

5.3.2**Udal bulegoetan ingurumen-gestiorako sistema bat ezartzea (Ekoscan, ISO 14001,...)**

PROGRAMA.	Udal langileen artean ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzea		
Deskripzioa:			
<p>Aztertuko da udal bulegoetan batean Ingurumen Gestio Sistemaren bat ezartzeko aukera, haren ingurumen-portaera hobetzeko eta etengabeko hobekuntzan aurrera egiteko. Horretarako, lehenik, identifikatu behar da ekipamendu eta eraikinen bat interes bereziko zatitza jotzen dena.</p>			
Epea	Motza	Lehentasuna	Altua
Gutxi gorabeherako kostua	0 €		
Arduradun nagusia	Ingurumena	Beste arduradun batzuk	
Gaia	18. UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN-GESTIOA	Aalborgeko konpromisoa	2. UDAL GESTIOA JASANGARRITASUNERANTZ